

Nokodek bideosormen erakusketa

"Bizitza mantxotutako esplosio bat da,
eta nire asmoa murriztea da
extasi bihurtu arte, une eternoa."
José Val del Omar

Kontzeptua

NOKODEK bideosormen erakusketa bat da.

NOKODEK bideoaren bitartez espresio modu anitzak ezagutzeko modu bat da. Espazio esperimental bat da, bideoa, arte eszenikoak, musika eta performancearen artean.

Datak. Lekua

Maiatzaren 24tik 29ra. Guardetxea. Urgull mendia, Donostia.

Erakusketaren ordutegia: Astelehenetik larunbatera, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

Ostiral eta larunbatean, zuzeneko emanaldiak 20:00etatik aurrera.

Formatua

Erakusketa formatua da. Urgull mendiko guardetxea izango da erakusketen topaleku. Bertan, astelehenetik larunbatera erakusketako bideo piezak ikus ahal izango dira, eta baita artistek mostrarako bereziki sortutako instalazioak ere.

Ostiral eta larunbatean erakusketa beteko da zuzeneko emanaldi eta performanzeekin.

Bestalde, ostegunean Omnivor Lab-en Envol City instalazio interaktiboaren aurkezpena egingo dugu.

Antolatzaileak

Banda Bat. <http://www.bandabat.org>

Kontaktua

David Aguilar. T/943458989 – 667971424 ankarakol@gmail.com

Iñaki Sagastume. T/ 9444051336 – 630669573 iniakisagastume@yahoo.com


Osasun kalea 10, Beheko solairua, eskubi

Donostia 20006

EDUKIAK

ATZERABEGIRAKOA

José Val del Omar. Val del Omar ezagutuz.



Fuego en Castilla

José Val del Omar (Granada, 1904- Madrid, 1982) oraindik ia ezezaguna da zinemaren historiaren munduko liburuetan. Gutxi entzun dute berataz, eta gutxiagok izan dute bere obra ikusteko aukera hemendik kanpo. Hala ere, estatu mailan ere presentzia arraroa da, lagun talde txiki bat ezik (pixkanaka handitzen ari dena). Eta hortxe dugu gakoa bere obra ezagutu eta ulertzeko.

Val del Omarrek bere obraren produkzioa haren gertuko ikuslegoarentzako egiten zuen; haren filmak, diskurtoak, ikusentzulea eta mezu igortzailea gerturatzen zituen. Eta bere influentzia hazten joan da azken urteotan (eremu mugatutan bada ere).

Eduardo A. Russo

VAL DEL OMARRI OMENALDIA.

<http://www.valdelomar.com>

ESPAINIAKO TRIPTIKO ELEMENTALA

Zinema munduan abangoardiako esperimentazioa alde batera utzi zen momentu batean, Val del Omarrek azken muturrera darama bere Espainiako triptiko elementalarekin. 50. hamarkadan hasia, eta 30 urteren bitartean eginga, hiru dokumental liriko osatuta dago, artistak berak "zinefagia" edo "elementalak" izenez deiturikoak: *Aguaespejo granadino (La gran siguiiya) (1953-55)*, *Fuego en Castilla (Tactilvisión del páramo del espanto) (1958-59)* eta *De barro (Acariño galaico) (1962, 1981-82, 1995)*. Bakoitza naturako elementu batekin erlazionatuta dago: lurra, sua eta ura, Espainiako ikuspegi berezi bat emanaz, erlijio mistizismoarekin nahastuz.

Aguaespejo granadino.1953-55



"Behin Federico nire lurraz mintzatzen entzun nuen: Jauna, emazkidazu urak ulertzen dituzten belarriak. Orain neu naiz eskatzen dituen. Emozio zuzenen benetako bidean nirea ez izanagatik, irudien bidexka hona gerturatuko baitzarete. Laister dabilen bidexka da, eta batzuetan, belarrak estalita."

José Val del Omar.

Fuego en Castilla (Tactilvisión del páramo del espanto).
1958-60



"Tactilvisión delakoaren saio sonambulua, Juan de Juni frantsesaren eta Alonso de Berruete espainiarraren erlijio eskulturen gainean,. Mendebaldetik ekialdera doan zine bat, ihesetik extasira."

José Val del Omar

Acariño galaico (de barro). 1960



"1961ean Val del Omar Galiziara bueltatu zen, misiolari lanetan dagoeneko ezagutzen zuena, eta Acariño galaico (De barro)ren filmaketa hasi zuen. Elemental honetan aireari buruz hitz egingo du; Arturo Baltar eskultorea aurkitu ondoren, proiektuak eboluzio bat jasango du, buztinari buruzko elementala bihurtu arte: lurra eta uraren arteko nahasketa. Val del Omarrek proiektua

noizean behin jarraitu zuen, Espainiako Triptiko Elementalaren barnean sartu ahal izateko.

1981ean, hil baino urte bat lehenago, montajea berregituratu zuen, baina pelikula bukatu gabe gelditu zen, dirudienez, (Rafael R. Tranchek dioen bezala), Val del Omarrek berak hala nahi izan zuelako. Javier Codesalek bukatu zuen filmea Rafael R. Trancheren laguntzarekin, Val del Omarrek soinu bandarako utzitako eskuizkribu eta bideo lanak jarraituz."

Victor Berlin

Val del Omarri omenaldiarekin jarduera paraleloak

Erakusketako hiru piezak ikustez gain, Val del Omarren poema batzuk irakurri ahal izango dira eta bere asmakizun batzuk ikustarazi ahal izango ditugu Rebecca Wilkinson artista ingelesak sortutako collageen bitartez.



"Val del Omar" diskoa ere entzun ahal izango dugu. Lagartija Nick Granadako musika taldeak egin zuen omenaldia.



ERAKUSKETA: BIDEO PIEZAK

BOTH. Jordan T. Caylor (San Francisco, California)


<http://www.vimeo.com/user941452>



Jordan T. Caylor, artista benetan berezia, berezko irudikapenarekin eta lan oso pertsonalekin. Hemen "Both" aurkeztuko du, bere estiloa erakusten digun pieza bat, motion graphics animazioa, argazki collagea, berezko musika eta gidoi zehatza erabiliaz.

TWILIGHT. Carlos Irijalba. (Iruña)

<http://www.carlosirijalba.com>



Iluntasunean tiro bat. Futbol zelai baten argi dorre bat, erabat zehaztutako espazio bat dena eta ikuskizunerako sortua, bere argitasun deskriptiboak guztiz sujeto bihurtzen duena, desplazatu egingo da. Dorre hau Europako azken oihanetako batera eraman dugu, Nafarroako iparraldeko Irati oihanera. Errealitatea ikuskorra bezela ulertzearen definizioaren berrikuntza bat.

Lekuaren errepresentazioa ez da nahikoa. Proiektuak instalazio hau planteatzen du irudia baino haratagoko errealitatearen behar bezala. Ikuskizunaren estrukturak erabiliaz.

Azken lekua, lekua bera da.

GAZPACHO. Itsaso Iribarren/German de la Riva

(Buenos Aires, Santander, Iruña)

<http://www.13dias.com>



Gazpatxo bat egiteari buruz da bideoa. Emakume eta gizon batek hortzak erabiltzen dituzte irabiagailu moduan. Expresio neutroa daukate, haien lana eraginkor egin nahi dute. Ekintza errepikatu egiten da eta abiadura handituz doa.

Azkenik, gazpachoa prestatzen dute eta bi edalontzitan aterako dute. Bakoitzak edalontzi bat hartuko du eta ikusentzuleari eskeintzen diote.

Argazki zuzendaritza: Ati Mohadeb

Musika: Ivanna Spector

Antzezleak: Itsaso Iribarren y Germán de la Riva

THAT'S LIFE, THAT'S DEATH. La gorrionera. (Bilbo)

<http://www.vimeo.com/lagorrionera>



Heriotzari buruzko sentrazioak. Herdoila, gogorapenak eta denboraren iragaitea.

ACCIONES URBANAS ABSURDAS. Left Hand Rotation (Madrid)


<http://www.lefthandrotation.com>



Gure Hiri Ekintza Absurduek hiria eta hiri-altzariekin erlazioa daukaten gauza nekagarriekin gozatzeko (edo hobeto aritzeko, behintzat) aukera ematen dizu. Kalera ateratzen zarenetik gonbidatua zaude. Gu lanean jarri gara eta osagaietako batzuk aukeratu ditugu haiekin gozatzeko.

LA MATANZA. Rúkula (Iruña)

<http://www.vimeo.com/rukula>



Nafarroako herri bat. Hileta bat, txerriarena.

PERMANENT VACATION. Larraitz Torres eta Myriam Pérez (Irun)




Permanent Vacation (Jim Jarmush, 1980) pelikularen bi sekuentzien bertsioa. Protagonistaren jarreraz (turista bitala) eta pelikularen erritmoaz bultzatuta, gure ingurutik ibilbide bat egiten dugu. Horrela, esperientzia ibilbide honen bitartez bertsio bat egiten dugu. Ikuspuntu anitzak jasotzen dituzten hiru bideok sortzen dute remake hau.



ESCUPTORES DE TIEMPO. Garrotx.lo (Orereta)

<http://www.virb.com/garrotxlo>



Maitatu, barre egin, amets egin, isiltasunean eramandako prozesuak.

DCANDANZE. Pixel in Fact (Carlos Villar, Barcelona)

<http://www.vimeo.com/pixelinfact>



Dcandanze, botere, dantza eta dekadentziaren arteko hitz joko bat. Espazio berezi baten izpiritua, energia, islatzen du dantzaren bitartez, historia eta lanez beteta. Bizitza propioa duen espazio bat.

DESKARGA. Detrás de la cámara (Donostia)

<http://www.detrasdelacamara.com>



Hondarribia, irailak 8:

- Haurrak erditzera eta harrikoa egitera! Putak! Emagalduek!
- Baina hori ez al da zure alaba?
- Gaur ez!

AL-AL proiektua: (Álvaro Ledesma, musika – Allende Arnaiz, irudiak)

<http://www.allendearnaiz.com> <http://www.alvaroledesma.com>



2008ko amaieran hasi zen erreflexio eta ikerketa prozesua da. Lan prozesua direkziobikoa da. Musika irudietatik jaio daiteke, edo alderantziz; irudiak musikatik. Baina beti, bi artisten arteko elkarriketatik.

Soka:

Hiru aktoko erreflexioa objektu baten errepresentazioari buruz: soka.

Acto 1- Penelope & Karel:

Askatu: Norbaiti obligazio bat kendu. Zerbait edo norbait libre utzi. Desitsatzi, sortu, isuri.

Acto 2- Texere (Ehundu):

Ehundu: Ehunean trama eta irazkia sortu. Konposatu, antolatu eta bere lekuan jarri, metodo bat jarraituz. Plan bat sortu. Animalia batzuetaz: telak eta zibotak sortu hari batzuk besteei itsatsita.


Acto 3- Korapiloak:

Askatu/Argitu: Korapiloa desegin. Ordenean jarri eta ordenik ez duena. Zailtasun batetik atera.

INSTALAZIOAK

LA MÁQUINA DE LOS SUEÑOS. Alberto Baena (Sevilla)

<http://www.vimeo.com/kaleidoskopiko>



Ikus-estimuloak sortarazten dituen betikara estroboskopikoen gailua da. Brion Gysin artistak eta Ian Sommerville zientzilariak sortu zuten William Grey Walter-en *El cerebro viviente* liburua irakurri ondoren. Bere oinarrizko itxuran, ametsen makina honek zilindro forma zuen, aldetan zuloak zituelarik. Zilindroa 78 edo 45 erreboluzio minutuko abiaduran darabilen gailu baten gainean jartzen da. Zilindroaren barruan bonbilla bat dago eta biraketaren abiadurak argia zuloetatik 8 eta 13 aldiz segunduko abiaduran ateratzen da. Frekuentzia hau Alfa uhinen frekuentzia berbera da: burmuinak erlaxatua dagoenean erabiltzen dituen frekuentziak.

Alberto Baenak bere bertsio erotiko-psikodelikoa aurkeztuko digu.

PIXEL ANAMÓRFICO. Alberto Baena. (Sevilla)


<http://www.vimeo.com/kaleidoskopiko>



ENVOL-CITY: Omnivor lab--- (Barcelona)

Interactive instalation art

http://www.virb.com/omnivor_lab




Omnivor_lab 2007 sortu zen elkargo bat da, arte eta teknologia uztartzeko. Ikerketa eta arte interaktiboaren ekoizpen plataforma bezala jaio zen, inguratzen gaituen errealitateari begirada kritiko bat emateko asmotan. Espazio publikoan eragintzeko borondatearekin jaio zen, eta, era berean, ikusentzulearekin elkarrizketatzea, proiektu artistikoen pieza nabarmenena izanda.

Envol-cityk inguru bat sortzean datza, erabiltzaile ikusentzuleak soinua eta irudia kontrolatu eta modulatzeko dituen bere mugimenduaren bidez. Irudia eta soinua hiri kontemporaneoarekin eta bere mutazioekin erabat lotuta daude. Gaur egungo barrutia kontutan hartuta, gizarteak pribatizazioa onartzen du eta hiri garapena sustatzaile gailenen menpe dago. Bere mugimenduen bidez, ikusentzuleak hiri handi baten irudia erakutsiko du. Irudia Ili Mayer (BTOY) artistak egina da. Lau puntutako soinu sistema baten bitartez, ikusentzuleak bere soinu presentzia nabari du, zein puntutan kokatzen den arabera. Eta soinu konkretuak sortu eta modulatzeko dituen era berean.

Envol-city instrumento birtual bat da, erabiltzaileak jotzen duena. Errealitateko urrutze fiktizio bat sortu nahi dugu, erreflexio, sormen eta experimentazio prozesu bat hasteko, irudi eta soinuaren bultzadak bideratuta.

MIKRO MUSEOA

Astean zehar praxinoskopio, estereoskopio, osziloskopio, tubo telebista eraldatuak eta beste erlikia batzuk ikusi ahal izango ditugu.




Era berean, argazkien sekuentzietan oinarritutako animazioak ikusi ahal izango ditugu. Mugimendua deskonposatzen duen argazkigintzaren aitzindaria eta Zoopraxiscopioaren sortzailea den Edward Muybridgeren "Animal Locomotion" (1887). Occident zaldiaren pieza famatua ikusi ahal izango dugu: lehen aldiz zaldi baten korrikaldia deskonposatu ahal izan zenekoa.

Ikusentzunezko garaiaren hasiera eman zuten fosilak dira. "Fotograma segunduko" esperientziaren lehen pausuak.



"KARRASKATU ETA MARGOTU" SUPER8 TAILERRA



Mikromuseoaren haria jarraituz, pelikula erabiltzeari buruzko tailer bat emango da. Super -8 pelikula espatulekin karraskatu, ondoren likido erregarri eta pintura anitzak emateko. Gero, Super-8 pelikula proiektatuko dugu emaitza ikusi ahal izateko. Amaitzeko, telecineak egingo dira zine materiala bideo formatura eraldatzeko.




ZUZENEKOAK - 28 OSTIRALA 28

1.// 21:30

NORABIDEA KOLEKTIBOA: Izaskun Lapaza. Amaia Navascues
(Donostia) Dantza, musika eta bideoa

<http://norabideakolektiboa.blogspot.com>



2007an sortutako talde bat da, garapen artistikoaren ekimenean murgilduta. Horretarako, bide askotako komunikazio irekia erabiltzen dute ahalmen anitzen artean. Oraingoan NOKODEK mostrarako bereziki osatutako pieza bat ekarriko dute, dantza, irudia eta soinua uztartuz.

2.// 22:00

HIRUKO AIREAN (Oiartzun, Marseille)



Zuhaitz batetik zintzilikatutako oihal batetan dantza, musika zuzenean, eta proiektzioak eszenatokira.

3.// 22:30

AL AL PROJECT: Alvaro Ledesma. Allende Arnaiz. (Oiartzun)

<http://www.allendearnaiz.com> <http://www.alvaroledesma.com>




Pianoa eta bideoa AL-AL. 2008ko amaieran hasi zen erreflexio eta ikerketa prozesua da. Lan prozesua direkziobikoa da. Musika irudietatik jaio daiteke, edo alderantziz; irudiak musikatik. Baina beti, bi artisten arteko elkarriketatik.

4.// 23:00

ZALDIAK (Bilbo)

<http://www.myspace.com/zaldiak>



Zaldiak taldearen kideak Burial-en kontzertu batean ezagutu ziren. Fat Boy Slim-en alkandorak, Chemical Brothers-en oinetakoak, eta Four Tet-en orrazkerak Jamie Lidell eta Beth Gibbons-en urtebetetze festan. Audience-tik zetozen, Bi.Rss-tik ere bati, eta Alphax erako bideoak egitetik zetozen. Hasieran "Perdidos"eko gaizkileak bezalakoak ziren, eta Ben Linus bezala, Villa de Bilbao txapelketako finalera iritsi ziren 2009an, joera berrien atalean. Miren Gaztañagaren "Stereo" dantza piezan lagundu zuten, eta Mariluz Vidalen "Myself in this moment" erakusketan argazkiek soina zezaten lortu zuten. Orain Zaldiak izan nahi dute, begiak dituztela jakin gabe ikusten dutela, eta korrika egiten dutela, ari direla

jakin gabe, eta atsegin dutena egiten dute ongi sentiarazten duelako. Zaldiak-ek gustatzen zaien musika egiten dute, eta dantza egin dadin ere gustatzen zaie. Lehen blues-tik, suediar elektronikara. Beat konplexu eta sakabanatuak, eta besteak, handiak, gardenak eta indartsuak. Azkar eta motel. Sakon eta absurdu. Gustora eta gaizki. Beroa eta hotz. Badute edo bazuten... eta inork ez daki.

Zaldiak, guztia eta ezerezaren artean.

5.// 24:00

REC STEADY CREW (Cádiz-Iruña)



Inprobisazio kolektiboa. Bapateko musika sormena eta bideo nahasketa zuzenean.

6.// 24:30

VIEJOVEN PINCHADISCOS DJ (Cádiz)

<http://www.lafilmvideomagazine.com>



Kadizetik garaje soulero frexkoa.

2 9 L A R U N B A T A - 20:00 *etatik aurrera*

Larunbat gaua irudi eta soinu esperimentazioari eskeini diogu.

Irudi eta soinu elektronikua sortzaile hauen eskutik.

1.// **Tzesne + Paralux + Amsia**

<http://www.seriesnegras.org> <http://www.amsia.org>



Tzesne_Paralux_Amsia - (Ambient, visual, esperimentazioa)

Noizbehinkako hirukotea, giro fantastikoak eta bidaia kontakizunak sortzen dituen soinu eta irudien bitartez. Performance-a, zine-zuzena eta soinu artearen artean.

"Asimilacionismo" lanean, soinu manipulatzailerik batek bestearen soinu espektroa inbadituko du bere estiloa, jarrera eta identitate keinuak lapurtuz. Bitartean, bere zama ere utziz joango da. Prozesuan, mugimenduan dauden irudiak agertuko dira bi identitateekin elkarrizketatuko dutenak.

Tzesne Euskal Herriko artista bat da. Soinu eta hotsen manipulazioan datza bere lanak, sentsazioak sortzeko asmoz. Musika konbentzionalismotik urrun, soinu paisaien munduan murgilduko gaitu.

Paralux gipuzkoar artistak ere oinarri berdinetik hasi du bere lana. Geldirik edo mugimenduan dauden irudiak, kasualak edo bilatutakoak, baina ia beti hotzak eta ilunak. Argiarekin joku sinbiotiko bat bilatzen du beti, baimendua eta debekatuaren arteko mugak deseginez, beste edertasun mota bat aurkitzeko.

Dj Amsia ez da Dj bat. ez du instrumenturik jotzen, zizelkatu egiten ditu. Ez du platerik erabiltzen, aurretik bertan jan ez badu. Soinuak fabrikatu egiten ditu, erein, jaso, jan, irentsi eta jaurtiki egiten ditu. Zehaztasun handiko frankotiradorea da. Bere "musika kaxa"rekin, zuzeneko grabazioak, sekuentziadoreak, diskak, eta intuizioan oinarritutako estilo bereziarekin, minimalismoa eta abstrakzioaren bidetik beldurrik gabe barrenduko da.

Tzesne, Paralux eta Amsiak NOKODEKen "Asimilacionismo" proiektu berria aurkeztuko dute energiak batuz eta zuzeneko indartsu bat emanaz.

DISBOOT + DISCONTINU SHOWCASE

Aurkezpena Donostian



<http://www.disboot.net>

<http://www.discontinurecords.com>

DISBOOT

ReBooT 2006an jaio zen Bartzelonan artista anitzen plataforma bezala. 2006 eta 2007 artean, emanaldien antolakuntzan lan egin zuten.

2007ko ekainan ReBooT-ek U.S.B. Festival (United Sounds Barcelona) sortu eta bultzatu zuen Surco eta Corsario Riddim-ekin batera. Bong-Ra (Planet Mu), Vex'd (Planet Mu), Filastine (Soot Records), Distance (Hotflush), Dj Maxximus (Warp/Mg77) bezalako artistek jo zuten han. Bertan Dubstep-ari garrantzia handia eman zioten.

2008ko udaberrian Discontinuu Records-ekin batera lan egiten hasi zen, eta bertatik izen berria sortu zen: DisBooT: ReBooT-eko eta Discontinuu-ko kideekin batera, eta baita kide berriekin, Cauto bezala. "Lost&Found" lehen Cd bildumarekin indarra hartu zuen.

DisBooT elektronika musika giroa berritzeko jaio zen, 2000. urtetik geldoa, espazio eta konexio faltagatik. Gure proposamena nazioarteko sareak sortzea da, espazio fisikoak bilatzea sare horiek garatzeko, eta plataforma bat sortzea Bartzelonako eszena elektroniko kulturalak indarra hartu dezan.

Gaur egun bi lan ditu, **offshore**, **filastine/cauto**, eta bidean daude **downliners sekt** eta **c156**.

DISCONTINU RECORDS

Discontinuu Records-ek musika ikuspegi berezia erakusten du, elektronika independientearen giroko musikoei laguntzeko asmoz. Musika ideia eta joeren bultzatzaile bezala ulertzen dugu; baita poztasun, arte eta kritika bide bezala.

Soinu materialaren edizioa musika sortzaileei laguntzeko modurik zuzenena da, bai formatu tradizionalen bidez, eta bai interneten bidez. Plataforma hazten doa, eta esfortzuak batzen, komunitate dinamikoak sortuz.

Gaur egun Motorheidi, Koulomek, PauK, AZ-Rotator, NIKKA edo U* bezalako artistekin lan egiten dute.

U* (Bartzelona)

<http://www.myspace.com/uxuka>



Uxuka*, Dj eta ekoizlea, ReBooT kolektiboaren sortzaileetako bat, eta Bartzelonako elektronika giroko proposamen berrien aitzindaria. U* proiektua aurkezten du, Discontinuu-ren babespean, itsasazpiko melodiak eta marea ritmikoak. Sub-dub-techno, basic channel-ean, ur melodietatik pasata. 2009an Net Ep bat plazaratu zuen Discontinuu Records-ekin.

ILIA MAYER (Bartzelona)

<http://www.myspace.com/iliamayer>



Ilia Mayer, musika ekoizle eta irudigilea (BTOY) da. Bere musika itsas "dron"ak, itsasazpiko argiak eta soinuen bidez egiten du.

PAUK (Girona, Discontin Records) <http://www.myspace.com/pauk2001>

Pau Pau Cabrujaren (Bartzelona 1978) seudonimoa da. Lan anitzen sortzailea, ikusentzunezko mundutik datorrena. Pau txikitxo kontserbatoriora joaten zen bitartean, PAUK jaioberria Pacman eta Casiorekin soinuekin jolasean ibiltzen zen.



2008an bere lehen LPa atera zuen, INSEKT, Discontin Records-ekin Fuckstival 2008 jaialdian aurkeztua. LA GUERRA DE PAPÁ abestia ELECTRONIC MUSIC OF CATALONIA 2009 diskoan gorde zuten, Sónar eta Departament de Cultura de la Generalitat de Catalunya antolatuta. Urte bereko maiatzan A PAS DE LORCA emanaldia aurkeztu zuten, poetaren olerki famatu batzuekin Juan Carlos Lérída dantzariak, Olga Cercós aktoreak eta PAUK.

Gaur egun LP berri baten sorkuntzan diardu, eta COMUNIDAD MONOMEren kidea, instrumentu bereziaren jarraitzaileen artista talde bat. Haiekin MONOME COMUNITY REMIX PROJECT bezalako ekitaldiak antolatu ditu.

MANINTHEATTIC (Bartzelona) <http://www.myspace.com/manintheatticz>



"...Estilo zehatz bat baino gehiago, soinu analogiko eta elektronikoen uztartze bat da, baxu ingurukor eta beat motzen eragina argi dagoelarik. Dubstep-etik jungle gordinenerako ibilbidea egiten du. Giro ilun eta beroen sortzaile, inguru elektronikoak sortzen ditu soinuaren root zentzu handiarekin..."

LIVE VISUALS

ALPHAX VJ

<http://www.myspace.com/alphaxvj>



HIP HOP Vj-en artean aitzindari eta lehen figura bat da. Alphax-ek hip hop panoramako talde garrantzitsuenei irudiak jarri dizkie. Club eta lokal anitzetan ere irudiak egin ditu, kanpoan irudien proiektzioak eta performanceak ere bai.

LA GORRIONERA

<http://www.vimeo.com/lagorrionera>



Gorrión irudien munduan hegan doa, super-8 eta 16mm formatuan berak sortutako irudiak erakutsiz, textura bereziekin, itxura nostalgiko, mekaniko eta indartsua lortuz.

VISUAL ASSAULT



Graffitien mundutik datorren donostiar taldea. Hiri ikonografia, kolorea, 3d, zuzeneko dantzari eta amorratua.

RÚKULA

<http://www.vimeo.com/rukula>



Rukulak gertu daukana filmatzen du. Dokumental iruditik hasita, jolasten hasten da eta hizkuntza elektroniko batera eraldatzen du, pixela eta errealitatearen arteko nahasketa. Pintura ilunekin zikinduriko dokumentala, hosto eta burniek puskatzen dituzten giro naturalak. Dantza, collage-a, bideo-egunerokoa edo animazioa dira bere zuzenekoaren elementu batzuk. Ez loop-ak irudi luzeei denbora ematen die, musikarekin lotuta.

GARROTX.LO

<http://www.virb.com/garrotxlo>



Hiri arkeologoa, bere mugikorrarekin graffitiak hondakinak, pintura ahaztuak, urradurak, pintura zikinak edo paper urratuak birziklatzen ditu. Bere CPU eramangarrian kolekzioan dituen irudi guzti hauekin stop motion sesioak sortzen ditu zuzeneko frexko-frexkotan.

NOKODEK

Maiatzak 24-29, 2010

Guardetxea. Urgull mendia. Donostia

Antolatzaile: Banda Bat

<http://www.bandabat.org>